


Matematika oposizioak elkarrekin prestatzen: aukezpenak, idatziz zein ahoz, eta problemen ebazpena



Ots. 27 - Api. 08 2020

Kod. @19-20

Mod.:
Online

Edizioa
2020

Jarduera mota
Luzapen luzeko online ikastaroa

Data
Ots. 27 - Api. 08 2020

Hizkuntzak
Euskara

Balio akademikoa
60 ordu

Antolakuntza Batzordea

Fundación
BBVA



Azalpena

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko baliozkotzea eskatuta dago unibertsitateaz kanpoko irakasleentzat.

- 60 ordu akademikoak

- Hasiera: 2020/02/27 Bukaera: 2020/04/08

Tarifa bakarra: 120 euro

Hizkuntza ofiziala: Euskera

Matematika oposizioetan hautagai aurkezteko asmoa duten matematika irakasleen ahalmen eta trebetasunak garatzeko ekimena eta alderdi didaktikoetan, matematikoetan eta problemen ebazpenekoetan aurrera pausoak emateko

Ikastaroaren laguntzaile espezifikoak



Programa

2020-02-27 / 2020-03-03

1.- Ikastaroaren eta partaideen aurkezpena: helburuak, edukiak, asmoak, nahiak, prozedurak...

Gai honetan ikastaroaren helburuak eta edukiak aurkeztuko ditugu eta partaideen bideo-aurkezpenak sustatu. Ikastaroan bideoen erabilera aurkezpenak egiteko ohiko modua izango denez hasiera-hasieratik horri eutsiko diogu sortu daitezkeen zailtasun teknikoak hasieratik ebatziz. Bukatzeko, Moodlearen aukeren aurkezpena egingo dugu Foroen erabileraren onurak mahai gaineratzen eta horrelako plataformek online ikas-irakaskuntzarako eskaintzen dituzten aukerak aipatuz.

2020-03-04 / 2020-03-09

2.- Oposizioetako deialdia eta legedia: Heziberri 2020

Heziberriren markoan eta Matematika-curriculumean jarriko dugu fokoa oraingoan. Matematikarako kompetenziaren definizioa eta osagaiak. Matematika kompetenziaren ezaugarriak eta alderdiak. Arloaren eta ikasgaiaren ikuspegia. Matematikaren aukerak zehar-kompetentziak zein kompetentzia espezifikoak garatzeko. Zein metodologia sustatzen den eta ebaluazio erizpideak eta lorpen adierazleeren zehaztapena.

2020-03-10 / 2020-03-15

3.- Baliabide metodologikoak, manipulagarriak zein digitalak, eta ebaluazioa

10 baliabide manipulagarri edozein matematika irakaslek ezagutu eta erabili beharko lituzkeenak. Matematika tailerrerako ikuspegi orokora. Baliabide digitalak: simulazioak eta interaktiboak, kontzeptu konplexuak ulertzeko eta integratzeko aukera bikainak.

2020-03-16 / 2020-03-21

4.- Arazo egoerak eta unitate didaktikoak: egitura eta adibideak.

Arazo-egoera zer den eta horien erabilera matematikaren irakaskuntzan. Ebaluazio diagnostikoak eta bertan agertzen diren egoerak. Maila desberdinetarako arazo-egoeren adibideak. Unitate didaktikoak zer diren eta horien erabilera matematikaren irakaskuntzan. Maila desberdinetarako unitate didaktikoen adibideak.

2020-03-22 / 2020-03-28

5.- Problemen ebazpena: sarrera, baliabideak...

Problema motak eta ebazpen estrategiak. Ebazpenaren faseak.

2020-03-28 / 2020-04-01

6.- Problemak ebazten: estrategiak eta adibideak (1/2)

Bigarren ehezkuntzarako problemak.

2020-04-02 / 2020-04-08

7.- Problemak ebazten: estrategiak eta adibideak (2/2)

Aurreko oposizioetako problemak: gaiak, esparruak, zailtasunak...

Zuzendaritza



José Manuel López Irastorza

Berritzegune Nagusia, Lasarte-Oriako sedea, Matematika aholkularitzaren kolaboratzailea

Prestakuntza: Magisteritza (1980-1983), Biologia (1983-1986) Lan-jardunbidea: Bigarren hezkuntzako irakaslea (1986-2002), hezkuntza-aholkularia (2002-2018). Blog Mateguay blogaren editorea: <http://mateguay.blogspot.com.es/> // // // Formación académica: Magisterio (1980-83), Biología (1983-1986) Trayectoria profesional: Profesor de Secundaria (1986-2002) Asesor educativo (2002-2018). Editor del blog: <http://mateguay.blogspot.com.es/>



Jose Luis Ramos San Julian

Arrasateko institutua, Profesor

Matematika Zientzietan lizentziatua (Estatistika eta Ikerkuntza Operatiboa) eta Magisteritzan diplomatua (zientziak). Matematika irakaslea egun Arrasateko institutuan. Irakasleen formatzailea problemen ebazpenean. Egin Matematika <http://eginmatematika.blogspot.com.es/> blogaren eta Sitesa: [https://sites.google.com/site/egingodugumate/ebaztek o-problemak](https://sites.google.com/site/egingodugumate/ebaztek-o-problemak) sitearen editorea. // // // Licenciado en Ciencias Matemáticas (Estadística e Investigación Operativa) y diplomado en Profesorado de EGB (especialidad ciencias). Profesor de matemáticas en el Instituto de Arrasate. Formador de profesores en el ámbito de la Resolución de problemas. Editor del blog: <http://eginmatematika.blogspot.com.es/> y del Sitesa: [https://sites.google.com/site/egingodugumate/ebaztek o-problemak](https://sites.google.com/site/egingodugumate/ebaztek-o-problemak)

Irakasleak



José Manuel López Irastorza



Jose Luis Ramos San Julian

Matrikula prezioak

MATRIKULA

2020-02-29 ARTE

Tarifa bakarra

120,00 EUR